

## Oinarrizko ikastaroa sarean. (5. Edizioa) Ekosistemen Zerbitzuak eta Giza Ongizatea Euskadin

### SARRERA

Ba al dakizu zein zerbitzu ematen dizkiguten ekosistemek? Zenbateraino gaude haien mende eta nola murriz dezakegu mendekotasun hori? Zer-nolako banaketa dute Euskadin? Nola laguntzen digute etorkizun iraunkorragoa lortzeko lurraldeari buruzko erabakiak hartzen? Ba al zenekien Euskadi nazioartean aitzindaria dela bere politiketan ekosistemen zerbitzuen kontzeptua aplikatzeari dagokionez?

Galdera horien erantzunak eta are gehiago aurkituko dituzu “**Ekosistemen Zerbitzuak eta Giza Ongizatea Euskadin**” izeneko oinarrizko sareko ikastaroaren (\*) edizio berri honetan. Ikastaro horren helburua da ekosistemen zerbitzuen kontzeptua hurbiltzea eta Euskadiko ebaluazio azpi-globalaren ezaugarri nagusiak ezagutaraztea. Sareko edukiez gain, aurrez aurreko jardunaldi-tailer bat ere egingo da.

Ikastaroa interesa duten eragileentzat pentsatua dago; besteak beste, irakasleentzat, administrazio publikoetako zein enpresa pribatuetako ingurumen-teknikarientzat, interpretazio-zentroetako begiraleentzat, irakasleentzat eta abarrentzat. Ikastaroan, ekosistemen zerbitzuei buruzko hastapenak eta kontzeptu horrek politika publikoetan dituen aplikazioak ikasiko dituzte.

Kurtsoa bai euskaraz bai erdaraz egin ahal izango da.

*(\*) Aurtengo azaroan, Euskadiko ekosistemen zerbitzuei eta giza ongizateari buruzko ikastaro aurreratu bat eskainiko da lehen aldiz.*

### EZAUGARRI OROKORRAK

**Maila:** oinarrizkoa.

**Gehieneko ikasle kopurua:** 30.

**Hizkuntza:** gaztelania edo euskaraz.

**Modalitatea:** sarekoa (moodle plataforma) gehi aurrez aurreko jardunaldi-tailerra (hautazkoa).

**Iraupena:** urriaren 13tik 31era. Ikastaroa osatzeko guztira 15 ordu beharko direla aurreikusten da.

**Aurrez aurreko jardunaldia:** urriaren 26an, 16:30etik 19:00etara, Bizkaia Aretoan (Abandoibarra etorbidea 3, Bilbo).

**Izen-ematea:** urriaren 4ra arte. Plazak baino izen-emate gehiago egonez gero, antolatzaileek ikastaroaren helburuetara hobeto egokitzen diren profilak aukeratuko ditu.

**Kostua:** 10 € (plaza baieztatu eta gero kontu zenbakia emango da ordainketa egiteko).

## EDUKIAK

- Ekosistemen zerbitzuak eta azpiegitura berdea definitzea.
- Nazioarteko testuingurua.
- Ekosistemen zerbitzuak eta azpiegitura berdea, hornidura-zerbitzuak, erregulazio-zerbitzuak eta kultura-zerbitzuak.
- Euskadiko ekosistemen zerbitzuen ebaluazioa.
- Euskadiko ekosistemen zerbitzurik garrantzitsuenak identifikatzea eta balioestea.

## METODOLOGIA

- **Sareko lanak** ardatz hauek ditu: alderdi teorikoa irakurtzea (5 ikasgai), sakontzeko agiriak kontsultatzea, erreferentziako webguneak aztertzea, foroetan eztabaidatzea eta banakako azken ebaluazio-jarduera bat egitea.
- Ikastaroa **urriaren 13tik 31era** egongo da zabalik. Ikastaroa osatzeko **15 ordu** beharko direla aurreikusten da.
- Ikastaroa osatzeko (hautazkoa izango da), **aurrez aurreko jardunaldi** bat egingo da **Bilbon**. Bertan, kontzeptu nagusiak berrikustez gain, lan praktikoa egingo da, jarduera-tailerren bitartez. Jardunaldian parte hartzea gomendatzen dugu, azken ebaluazioa baino lehen zalantzak argitzeko abagune bikaina eta eztabaidarako tokia baita. **Urriaren 26an izango da, 16:30etik 19:00etara, Bizkaia Aretoan** (Abandoibarra etorbidea 3, Bilbo).
- **Ebaluazioa:** ikasleak gai bakoitzaren ebaluazio-jarduera bat egin beharko du; jarduera hori test erako azterketa edo antzeko zerbait izango da. Ikastaroa gainditzeko, foroan gutxienez behin parte-hartzea derrigorrezkoa da. Ikastaroa gainditzen duten ikasleek **ziurtagiri** bat jasoko dute, ikastaroan parte hartu dutela eta ebaluazioa gainditu dutela frogatzeko.
- **Izen-emate orria:** <https://forms.gle/xtev2w68v8vLQ35g7>
- **Informazio gehiago:** Nekane Viota [n.viota@unescoetxea.org](mailto:n.viota@unescoetxea.org)

**Antolatzaileak:**



**Laguntzaileak:**

